

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea taxi zerbitzua arautzen duen ordenantzari

Udalbatzak, 2020ko uztailaren 17an hartutako erabakiaren bidez, hasierako onespena eman zion Lapuebla de Labarcako udalerrian taxi zerbitzua arautzen duen ordenantzari, eta abuztuaren 17ko ALHAOn (72. zk.) argitaratu zen.

Jendaurrean jartzeko epea amaituta eta Udalbatzak 2020ko urriaren 16an behin betiko onetsita, aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, osorik argitaratzen da ordenantzaren testua.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aurrekoaz gain, egoki irizitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da.

Hona hemen ordenantzaren testua osorik:

Lapuebla de Labarcako taxi zerbitzua arautzen duen ordenantzaren testu osoa

1. artikulua. Lege oinarria eta xedea

Ordenantza hau emateko honako hauek hartu dira kontuan: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 25.2.g) artikuluan xedatutakoa; Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren ekainaren 29ko 2/2000 Legea, eta Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren Legearen Erregelamendua onesten duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretua.

Ordenantza honen xedea da Lapuebla de Labarcako udalerrian (Araba) edo bere zerbitzu eremu bateratuan turismo ibilgailuekin egiten den hiri garraio publikoa arautzea.

2. artikulua. Definizioa

Ordenantza honen ondorioetarako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

1. Taxi zerbitzua: bidaiariak turismo ibilgailuekin garraiatzeko zerbitzu publikoa.
2. Herri barruko garraioa: Lapuebla de Labarcako udalerrian (Araba) edo zerbitzu eremu bateratuan (Guardia-Arabako Errioxako kuadrilla) egiten dena.
3. Herri arteko garraioa: aurreko puntuan sartzen ez direnak.
4. Turismo ibilgailuak: motozikletez besteko ibilgailu automobilak, pertsonak garraiatzeko pentsatu eta sortuak, guztira, gidaria zenbatuta, bederatzita lagun edo gutxiagorentzako lekua dutenak.

I. Kapituluak. Lizentziak eta baimenak

3. artikulua. Garraio lizentzia eta baimena

Turismo ibilgailuen udal lizentzia hiriko garraioa egiteko gaitzen duen titulua da; Arabako Foru Aldundiaren baimena, aldiz, hiri arteko garraioa egiteko gaitzen duen titulua.

Pertsona fisikoak izan behar dira lizentzia eta baimenen titularrak, halaxe jasotzen baitu Bidaiariak hiri barruan eta hiri artean turismo automobiletan garraiatzeko zerbitzu publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Legeak 6. artikuluan.

Bidaiariak herri barruan eta herri batetik bestera autoz garraiatzeko zerbitzu publikoa emateko, beharrezkoa izango da, oro har, lehenengo herri barruko garraiorako udal lizentzia eskuratzea eta gero herri arteko garraiorako foru aldundiaren baimena.

Udalak, udal lizentzia eman aurretik, txostena eskatuko dio herri arteko garraiorako baimena emateko eskumena duen foru aldundiko organoari. Kontingenteren bat ezarri bada eta kupo erabilgarria badago, organo horrek kupoaren eskuragarritasunari buruzko informazioa emango du. Udalak udal lizentzia emateari buruzko erabakia hartuko du, lizentzia hori emateko ezarritako prozeduraren arabera, aipatutako txostena ikusita, ibilgailuei eta gidariei buruzko baldintzak eta arauetan ezarritako gainerakoak betetzen diren aztertu ondoren, eta garraio beharrak eta dagoen garraio eskaintza kontuan hartuta.

Lizentzia eta baimen bakoitzak titular bakarra izango du, gidari bakarra, eta ibilgailu bakarra eta zehatza; hau da, pertsona bera ezin da izan lizentzia edo baimen bat baino gehiagoren titularra.

Lizentziak eta baimenak mugagabeak izango dira, baina epe hori baldintzatuta geratuko da, haiek eman eta ezeztatzeko organo eskudunek egin ditzaketen ikuskatzeetarako aurreikusitako ondorioei buruz ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Lizentzia kopurua

Lapuebla de Labarcako Udalak eskatu du Guardia-Arabako Errioxa Kuadrillaren zerbitzu eremu bateratuak gehienez izan ditzakeen bederatzita baimenetatik turismo ibilgailu baimen bat esleitzeko; beraz, hori esleitzeak udal lizentzia bat emateko aukera dakar. Zerbitzu eremu bateratuaren barruan esleitutako plaza gerora desagertzen bada, ez da kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango, eta udal lizentziaren indarraldia, hasiera batean mugagabea, amaitu egingo da.

5. artikulua. Lizentziak eskualdatzea

Lizentziak eta baimenak ezin izango dira eskualdatu, kasu hauetan izan ezik:

a) Titularra hiltzen denean, alargunaren edo legezko oinordekoen alde.

b) Erretiroa hartzean.

c) Artikulu honetako a) apartatuan adierazitako alargunak edo oinordekoek ezin dutenean lizentzia ustiatu jarduera bakar eta eskusibo gisa.

d) Gaixotasuna, istripua edo ezinbestezkotzat jo daitekeen beste arrazoiren bat dela-eta titularra lanbiderako betiko ezindua geratu denean.

e) Lizentziaren titularrak hamar urtetik gorako antzintasuna duenean. Lizentzia eskualdatu ahal izateko udalaren baimena izan behar da, eta titularrak ezin izango du lizentzia beste lizentziarik eduki, udalerrri honetan, hamar urte igaro arte.

b), c), d) eta e) kasuetan, udalari baimena eskatu ondoren, udalak bi hilabeteko epea izango du eroslehentasun eskubideaz baliatzeko, eskualdatzaileari lizentzia ematerakoan jarritako ekonomia baldintza berdinetan, egin beharreko eguneraketak eginda. Epe hori igarota ez bada eskubideaz baliatu, uko egin zaiola ulertuko da.

Lizentziak eta baimenak ezin izango dira eskualdatu, baldin eta Udala eta Foru Aldundia, hurrenez hurren, lizentziak azkentzeko edo aldi baterako eteteko prozedura izapidetzen ari badira.

6. artikulua. Lizentziak ematea

Jendeari zerbitzua emateko dagoen beharrizanaren eta egokitasunaren arabera emango dira ofizioz lizentziak.

Beharrizan eta egokitasun horiek zehazteko honako hauek aztertuko dira:

- Zerbitzuaren kalitatea eta hedadura, lizentzia berriak eman baino lehen.
- Udalerri mota, hedadura eta hazkundera.
- Zerbitzu hobea eta zabalagoa emateko benetan dauden beharrizanak.
- Emango diren lizentzia berriek garraioan eta zirkulazioan izango duten eragina.

Espedientea izapidetuko da lizentziok emateko, lehia askeko eta bereizkeriarik ez izateko honako printzipio hauek errespetatuta:

Taxi zerbitzuaren udal lizentziak udal organo eskudunaren ebazpen bidez emango dira, doan edo kostu bidez, eta horretarako, alde aurretik lehiaketa bat deituko da. Lehiaketa horretan baloratu ahalko dira, besteak beste, eta adibideak jartzearren, honako alderdi hauek:

- Eskaintza ekonomikoa, doakoa ez bada.
- Hizkuntzak jakitea.
- Lizitatuzaileek zerbitzuaren ezaugarri berezietan egiten dituzten proposamenak.
- Beste lizitatuzaileen aldean zerbitzua hobetzen duten bestelako merezimenduak.

Lehiaketan parte hartzeko, lizitatuzaileek zerga betebeharrak beteta izan beharko dituzte eta trafiko eta bide segurtasun arloan organo eskudunak emandako dagokion gidabaimena izan beharko dute; horrez gain, ezin izango dute izan lan horretan jardutea zailtzen edo eragozten duen inongo ezintasun fisiko edo psikikorik.

Izapidetu beharreko espedientean txostena eskatuko zaio Arabako Lurralde Historikoko Taxi Batzordeari. Batzorde hori eraturik ez badago, txostena Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatuko zaie eta entzunaldia emango zaie ordenantza honetan kontuan hartutako taxiaren sektoreko kolektiboari. Izapidetu beharreko espedientean tramite bat jasoko da ordenantza honetan kontuan hartutako elkargo profesionalen entzunaldia emateko, bidezkotzat jotzen dutena alega dezaten prozedura horretan onartu edo baztertutako hautagaien inguruan. Emandako lizentzien erregistroa izango du udalak; bertan titularitatearen inguruko gorabeherak jasoko dira, bai eta haiei lotutako ibilgailuak, egindako arau hausteak, ezarritako zigorrak eta lizentziari edo baimenari dagozkion bestelako gaiak ere.

7. artikulua. Taxi lizentziaren eskatzaileak

Honako betekizun hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek eskatu ahal izango dute taxi lizentzia:

- Pertsona fisikoa izatea. Ezingo zaio lizentzia pertsona bati baino gehiagori batera eman.
- Beste lizentzia baten titularra ez izatea.
- Indarreko legeriak zergen arloan ezarritako betebeharrak betetzea. Indarreko legeriak lan, gizarte edo administrazio arloetan ezarritako betebeharrak betetzea.
- Lizentzia izango duen ibilgailuak ordenantza honetan ezarritako betekizunak bete behar ditu, baita lizentzia eskatzen den unean ere.
- Erantzukizun zibila estalita izatea, egiten duten garraio zerbitzua dela eta erabiltzaileei eragin diezazkieketen kalte eta galerengatik. Nahitaezkoa izango da, orobat, berariazko legeriak eskatzen duen aseguru poliza egitea gainerako arriskuak estaltzeko.

8. artikulua. Gidabaimena izatea

Herri barruko eta herri arteko garraio publikoa egiten duten automobilak gidatzeko, beharrezkoa da trafiko buruzagitzak emandako gidabaimen nahikoa izatea, bai eta herri barruko eta herriz kanpoko garraio publikoko automobilen gidabaimena ere, 243/2002 Dekretuaren 35. artikuluan aurreikusitakoaren arabera emana. Lizenziaren eskatzaileak gidabaimena lortzeko azken proba horiek gainditzen ez baditu, lizentzia hori ez ematea ekarriko du berekin, ez baita soldatapeko gidari bat kontratatuz lizentzia modu mugatuan ustiatzeko aurreikusitako kasuetako bat.

9. artikulua. Lizenzien iraupena, etetea, azkentzea eta ezeztatzea

Ibilgailuak zein kasutan ordezkatu edo aldatu daitezkeen:

1. Udalak emandako taxi lizentzia mugagabea izango da, baina epe hori baldintzatuta geratuko da, haiek eman eta ezeztatzeko udalak egin ditzaketen ikuskatzeetarako aurreikusitako ondorioei buruz ezarritakoaren arabera eta zerbitzu eremu bateratuan plazak egotera.

2. Ibilgailuak istripua edo matxura izan badu, lizenziaduna gaixorik badago edo zerbitzua ezin ematea eragin duen beste edozein inguruabar gertatu bada, udalak lehenbizi lizenziaren titularrari eskatuko dio inguruabar horiek egiaztatzen dituen txosten ofiziala aurkezteko eta, ondoren, lizenziaren eraginkortasuna eten egingo du harik eta inguruabar horiek amaitu arte.

Zerbitzua ezin bada hiru hilabete baino denbora luzeagoan eman eta lanean ez egoteko arrazoia egiaztatzerik ez badago, udalak lizentzia ezeztatu ahal izango du; ez da horrelakorik gertatuko, alabaina, lizenziaren titularrak beste gidari bat kontratatzen badu aplikatu beharreko araudia betez. Horrelakoetan, Bidaiariak hiri barruan eta hiri artean turismo automobiletan garraiatzeko zerbitzu publikoaren Legearen Arautegia onesten duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuan ezarritakoa bete beharko da.

3. Lizentzia honako arrazoiengatik azkenduko da:

a) Titularrak lizenziari uko egitea.

b) Ezeztatzea.

c) Titularra hiltzea, salbu eta ordenantza honetan lizenziak eskualdatzeko ezarritako kasuren bat bada.

d) Lizentziak eta baimenak baliogabetzea (udalarena edo hiri arteko garraiorakoa). Gaikuntza tituluetako bat azkentzen bada, hala udal lizentzia, nola hiri arteko garraiorako baimena, bestea ere azkenduko da, 243/2002 Dekretuaren 12. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitako salbuespenarekin. Horretarako, dagokion udalak azkendutako lizenzien berri emango dio organo eskudunari.

4. Udalak lizentzia ezeztatzea erabaki ahal izango du honako kasu hauetan: Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren ekainaren 29ko 2/2000 Legean ezarritako kasuetan eta Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren Legearen Erregelamendua onesten duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuan ezarritako kasuetan. Horrez gain, lizentzia ondorerik gabe geratuko da, baldin eta ez badira betetzen zerbitzua emateko bete behar diren baldintzak.

Kasu horietan, ezeztatutako lizenziaren titularrak ezingo du beste bat eskatu ezeztatzea gertatzen denetik 10 urte igaro arte.

Ibilgailuak noiz ordezka daitezkeen:

Udal lizentzia edo Foru Aldundiaren baimena duten ibilgailuak ordezkatu egin daitezke, baldin eta administrazio emaileek baimena ematen badute. Horrelakoetan, ordezko ibilgailuak 2 urtetik beherako antzintasuna izan behar du lehenengo aldiz matrikulatu zenetik.

Ibilgailuen ezaugarriak noiz alda daitezkeen:

Aldaketek ibilgailuaren baimendutako gehieneko pisuari, zama edukierari, plaza kopuruari edo beste ezaugarri batzuei eraginez gero, lizentziak edo baimenak indarrean jarraitzeko baimena eman beharko da.

II. Kapitulua. Zerbitzua emateko baldintzak

10. artikulua. Lizentzia ustiatzea

Lizentziaren titularrak bakarrik erabil dezake lizentzia.

Salbuespenezko egoeretan (titularraren heriotza, baliaezintasuna, lanerako aldi baterako ezintasuna edo zerbitzua norberak ematea galarazten duen bestelako edozein egoera, behar bezala egiaztatua) soldatapeko gidaria kontratatuz ustiatu ahal izango da lizentzia. Nolanahi ere, lizentzia bakoitzak gidari bakarra eduki ahal izango du atxikia.

Soldatapeko batek ezin du inola ere zerbitzua eman titularra erretiratuta badago.

Soldatapeko gidariak jarduera hasi baino lehen egiaztatu behar dute udalean lizentziaren titularrak kontratatu egin dituela eta dagokion Gizarte Segurantzako Langileen Araubidean sartuta daudela.

11. artikulua. Zerbitzuak ematea

Lizentzia eskuratzen duten pertsonak gehienez ere 60 egun natural izango dituzte zerbitzua ematen hasteko, lizentzia eman zaiela jakinarazten den egunetik aurrera.

Betebehar hori bete ezin bada, titularrak horren arrazoiak egiaztatu beharko ditu Alkatezta honetan eta idatziz eskatu bigarren epe bat emateko. Udalak luzapen bakar bat baimendu ahal du, gehienez ere 60 eguneko.

12. artikulua. Zerbitzuak emateko baldintzak

Honela kontratatu ahal du auto taxi zerbitzua:

- Ibilgailuaren gidariak jasoko duen seinalea ematen denean, orduan ulertuko da zerbitzua kontratatu dela.

- Taxian sartuta, udalak baimendutako geralekuren batean dagoenean.

- Telefono bidez hitzartu daiteke. Zerbitzua eskaera egin den unean bertan edo espresuki adostutako beste edozein unetan gauzatuko da.

Oro har, garraio zerbitzuak ematean ibilgailuaren edukiera osoa kontratatuko da, pertsonak eta haien fardelak eramateko.

Garraiolariak ezin izango du lizentzian baimendutako plaza kopurua baino bidaiari gehiago eraman; dena den, mandatuak egin ahal izango ditu garraiolariak eta erabiltzaileak hala adosten dutenean. Kontratatzailerak bakarrik eska dezake mandatuak eramatea, eta horiek jatorri eta helburu bakarra izan behar dute. Ezin dira era berean eraman bidaiariak eta mandatuak. Turismo ibilgailuen bidez hiri barruan edo hiri artean bidaiariak garraiatzeko zerbitzuetan ezarritako tarifak aplikatuko dira mandatuak eramatean.

Lapuebla de Labarcako Udalak une bakoitzean ezarritako lekuetan egongo dira taxi geralekuak.

III. Kapitulua. Gidariak

13. artikulua. Lanaldia

Lapuebla de Labarcako Udalak egutegi bat proposatuko du urte bakoitzaren hasieran, zerbitzuen ordutegiarekin, eta zerbitzu eta atsedeen egunak eta ordutegiak adieraziko ditu. Sektoreko elkarte profesionali entzunaldia emango die horren inguruan.

Lizentziaren titularrak udal honek onartutako egutegian aldaketaren bat egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko du gutxienez 10 egun lehenago.

14. artikulua. Gidarien betebeharrak

1. Gidariak bide laburren hartu beharko dute bidaiariak esandako helburura heltzeko, kontrakorik esan ezean.

2. Gidariak ezin izango diote uko egin zuzenean edo telefonoz eskatu zaien zerbitzu bati, bidezko arrazoirik ez badago. Hona hemen bidezko arrazoiak:

- Poliziak bilatzen duen pertsona batek eskatzea zerbitzua.
- Zerbitzua onartuz gero ibilgailuak baimenduta duen gehieneko bidaiari kopurua gainditu behar izatea.
- Bidaiariren bat nabarmen mozkortuta edo estupefazientez intoxikatuta egotea. Alabaina, bidaiariaren bizia arrisku larrian edo berehalako arriskuan badago, eraman egin behar da.
- Igaro ezin diren bideetatik joateko eskatzea.
- Zerbitzua eskatu duen pertsonaren arropak ibilgailua zikindu edo hondatu ahal izatea.

3. Gidariak agiri hauek eraman behar dituzte berekin zerbitzua ematen duten bitartean:

- Ibilgailuaren gainekoak: bidaiariren hiri arteko garraio publikoaren lizentzia eta baimena; lizentzia zenbakiaren eta ibilgailuak eraman dezakeen bidaiari kopuruaren plaka; ibilgailuaren zirkulatzeko baimena; aseguruako poliza eta ordainagiria; taximetroaren kontrol metrologikoaren buletina eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoko estazioak egindako azken egiaztapenaren ziurtagiria; kontrol metrologikoaren etiketa, egiaztapenaren balio epearekin, jendeak ikusteko moduko leku batean jarrita.

- Gidariaren gainekoak: gidabaimena eta gidatzeko udal baimena.

- Informazioa ematekoak: plano eta gida eguneratuak, larrialdietako zerbitzuen helbideak, ordainagirien eta fakturen taloitegia eta erreklamazio orriak.

4. Taximetroa gelditu egin beharko da gidariak edo bidaiariak ibilgailutik atera behar bada 50 euroren edo gutxiagoren diru xehea eskuratzeko, baina ez 50 euro baino gehiagorena eskuratzeko, gidariak ez baitu nahitaez aldean eraman behar 50 euro baino gehiagoren diru xeherik.

5. Gidariak zuzentasun osoz eta portaera onez eman behar du zerbitzua, eta bidaiariak daramatzen fardelak ibilgailuan sartu eta handik atera beharko ditu.

6. Egoki jantzi behar du, nahi duen arropa jantzita, eta garbitasun pertsonala zaindu beharko du.

7. Ibilgailuko gidariak kasuan kasuko udal bulegora eraman behar ditu bidaiariak ibilgailuan ahaztuta uzten dituzten objektuak, aurkitu eta 72 orduko epearen barruan.

8. Erregaia ezingo da kargatu zerbitzua ematean, bidaiariak horretarako baimena berariaz eman ezean.

9. Erabiltzaileak ibilgailuan sartu eta bertatik irteteko, gidariak leku aproposetan geratu behar dute, hau da, pertsonen segurtasuna bermatuta dagoen lekuetan, betiere zirkulazioa oztopatu gabe eta ibilgailuaren osotasuna zainduz.

IV. Kapituluua. Ibilgailuak

15. artikulua. Ibilgailuen edukiera

Turismo ibilgailuek, oro har, bost plazako edukiera izan behar dute, gidariarena barne, eta edukiera hori zirkulazio baimenean eta ibilgailuaren azterketa teknikoko txartelean agertu behar da. Hala ere, behar bezala justifikatutako kasuetan, edukiera hori 9 plazaraino handitu ahal izango da, kasu bakoitzean eskumena duen udalaren eta foru aldundiaren baimenarekin, betiere ibilgailuei buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoari egokitzen bazaio eta homologazioari eragiten ez badio. Baimen horretan zerbitzua emateko baldintzak ezarri ahal izango dira.

16. artikulua. Ibilgailuen bereizgarriak

Ordenantza honen aplikazio eremuan taxi zerbitzua ematen duten ibilgailuek "Lapuebla de Labarcako taxia" idazkuna eraman beharko dute ibilgailuaren aurreko bi ateetan.

Ibilgailuak SP bereizgarria izango du, alegia, plaka bana ibilgailuaren aurrealdean eta atzealdean, matrikula plaken alboan. "Zerbitzu publikoa" bereizgarriak, "Librea" adierazten duen argiteriak eta taximetroko argiteriak Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean jasotako ezaugarriak izan behar dituzte.

17. artikulua. Ibilgailuen betekizunak

Taxi zerbitzua ematen duten ibilgailuak homologatutako marka eta modeloetakoak izan behar dira, araudiak ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, eta, batez ere, hauek:

– Karrozeria itxia eduki behar dute; maletategiak gutxienez 330 litroko edukiera izan behar du, eta erraz sartzeko moduko eta funtzionamendu errazeko ateak, indarra egitea eskatzen ez dutenak.

– Ez dute 2 urtetik gorako antzinatasuna izango lehengo matrikulaziotik.

– Ibilgailuaren barrualdeko neurriak eta ezaugarriak zerbitzuak beharrezko dituen segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko modukoak izan behar dira.

– Aurreko eta atzeko ateetan, kanpoan zer dagoen ikusteko, argia sartzeko eta aireztatzeko moduko leihoak egon behar dira. Leiho horiek material gardena eta ezpaletan apurtuko ez dena izan behar dute; halaber, leihoak erabiltzaileek nahi bezala igo eta jaisteko mekanismoa izango dute.

– Ibilgailuaren barruan agiriak eta txanponak ikusteko argi elektriko nahikoa egon behar da.

– Su itzalgailuak eduki behar dituzte, aplikatu beharreko indarreko legerian ezarritakoa betez.

– Berogailua eta aire girotua eduki behar dituzte.

– Segurtasun pantaila izan dezakete.

– Matxura ohikoenak konpontzeko tresnak eraman behar dituzte.

– Indarreko tarifak erabiltzaileak ikusteko moduko tokiren batean jarri behar dira.

– Lizentziaren titularrak taximetro bat eta modulu adierazle bat jarri beharko ditu lizentzia duen ibilgailuan, aukera ematen duena une bakoitzean indarrean dauden tarifak aplikatzeko eta ikusteko. Bidaariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren Legearen Erregelamendua onesten duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren 32. artikuluan ezartzen diren betekizunen arabera instalatu beharko da.

Nolanahi ere, ibilgailuaren moduluan argi eta garbi adierazi beharko da ibilgailuaren lizentzia zenbakia.

18. artikulua. Ibilgailuetako publizitatea

Debekatuta dago ibilgailuaren barruan eta kanpoan publizitatea jartzea, lizentzia ematen duen organo eskudunak horretarako baimena eman ezean.

V. Kapitulua. Tarifak**19. artikulua. Tarifak**

Turismo ibilgailuen zerbitzuak tarifaren arabera emango dira. Tarifa hori agintaritzaren eskudunak aztertu eta ezarriko du aldiari aldiari.

Hala ere, tarifa baino prezio merkeagoak ere hitzartu daitezke herri arteko erabilera eskusiboko garraioetarako; horrelakoetan, ez da betebeharririk izango taximetroa piztuta eramateko, non eta agiri batean idatzita jaso den hitzartutako prezioa eta agiri hori ibilgailu barruan eramaten den zerbitzua ematen den bitartean.

Ez da gehigarrik ordaindu beharko itsu txakurrak edo ezinduen laguntzarako beste-lakoak eramateagatik. Horrez gain, lizentziaren titularrak ezingo die eskatu inolako gehigarrik erabiltzaileei indarreko araudian aurreikusita ez badago edo udalaren baimenik ez badu.

VI. Kapituluua. Arau haustek

20. artikulua. Garraioaren arau haustek

Garraioeko arau haustek arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren ekainaren 29ko 2/2000 Legeak ezartzen ditu arau hauste horiek.

21. artikulua. Zenbatekoa

Eragindako kaltea haztatuta, muga hauek errespetatu beharko ditu zehapenen zenbatekoak:

Zehapen arinak: Ohartarazpena egingo da edota 276,46 euro arteko isuna jarriko da, edota taxi titulua gehienez 15 egunerako kenduko da.

Zehapen astunak: 276,47 eurotik 1.382,33 eurora bitarteko isuna jarriko da, edota taxi titulua gehienez 6 hilabeterako kenduko da.

Zehapen oso astunak: 1.382,33 eurotik 2.764,66 eurora bitarteko isuna jarriko da, edota taxi titulua gehienez urte baterako kenduko da.

Zehapen horiek gorabehera, behin eta berriz arau hauste oso astunak egiten badira edo jarritako zehapena betetzen ez bada, taxi titulua kendu ahal izango da.

22. artikulua. Zehatzeko prozedura

Zehatzeko prozedura ofizioz edo alderdi batek eskatuta hasiko da, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak xedatutakoarekin.

Egintzek delitua edo falta dakartenean, toki erakundeak bidezkoa den akzio penala gauzatu beharko du, edo bestela egitateen berri eman Fiskaltzari.

Prozedura penala hasten bada, administrazio prozeduraren izapidetzea etenda geratuko da harik eta jurisdikzio horrek epaia eman arte. Dena den, ondasuna onik artatu eta leheneratuko dela bermatzeko, premiazkoak diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

Xedapen iragankorra. Euskadiko Prezioen Batzordeak edo unean-unean eskumena duen organoak Guardia-Arabako Errioxa Kuadrillako zerbitzu eremu bateratuko hiri tarifak onartzen ez dituen bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien herri arteko garraio publikoko zerbitzuetarako onartutakoak aplikatuko zaizkie hiri tarifei ere.

Azken xedapena

Testu osoa ALHAOn argitaratzen den unean egongo da indarrean ordenantza hau, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2. artikuluan, lege horretako 70.2. artikuluari lotuta, ezarritako epea igaro ostean.

Lapuebla de Labarca, 2020ko urriaren 16a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ